


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZER

356n. zenbakia • 2010 Urtarrila



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Euskera dala eta...



Lau kandela



Erregai
aurrezteko aolkuak



Sabino Arana
Lekeition

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2009-2010 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 42. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

**42.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

2009 gabon zar 2010 urte barri



Gabon zarretan nabil
gutziz xamurtuta,
jaungoikoaren laguntza
ugaria ikusita.
Larogei sei urte
Daukodaz beteta,
T'arbola zar antzera
Nago zarkituta.
Urter Barri ona daidan,
Jaunak lagunduta.

Lau kandelana.



Alango toki batean lau kandela egozan biztuta.

Ixiltzu egozan berbaz alkarregaz. Ixiltxu baña entzuteko añean.

Lenengo kandelatxuak ,nik BAKEA dot izen,esan eban apal apalik. Baña danak ankazgora botaten nabe.

Obe da amatatea. Ta beingo baten amatau zan kandelatxua.

Bigarrenak ba diño: nire izena MAITASUNA da. Esan bear dot iñok be esteutela jaramonik egiten.

Onea da illundutea. Eta argi barik gelditu zan.

Irugarrenak ni FEDEA naz izenez. Baña egiz esanda, ez nau iñok be onartuten.

Obe da alde egitea. Eta amateu zan beingo baten.

Une onetan mutikotxu bat agertzen da kandelatxuak dagozan lekuan.

Ikusten dauz lau kandelatik iru su barik dagozala eta sano samurtuten da negar egiteraño.

Orduan laugarren kandelatxuak esaten deutso gozo gozo: aiko, muti! ni ITXAROPENA NAUK!

Nire gartxuagaz beste irurak biztu eizak. Jakin dagikan, ni guztien gogoan nagokela.

Zorionez, danen barruak bizi nok-eta.

Eta arrezkerotik lau kandelatxuak bizi-bizi ta argitsu agertzen ei dira.

Klaudio Barroetak euskeratua.

Armiarma sarea

Ba omen zan gizaseme bat gaizkille batzuk erasotzen eutsoena erailtzeko gogo txarrez. Gizasemea ostondu ei zan koba-zulo batean.

Gaizkilleak bere billa asi ziran, inguruan egozan kobak begiratu.

Larritasun onetan eskari bat zuzendu eutson Jainkoari: *“Jaun Alguztidun orrek, egizu aingeru bi jatsi daitezela eta estali dagiela kobako agoa, erail ez nagien.*

Une orretan gizasemea konturatu zan urbillean ebiltzala gaizkilleak, eta amaraun txiki bat agertu zala.

Amarauntxua sarea eiotzen asi zan kobako agoan.

Gizasemeak otoitz egin eban barriro. Oraingoan urduriago, ta begiak itxiaz, esan eban: *Jauna, aingeruak eskatu neutsuzan eta ez amareun bat.*

Eta jarraitu eban: *Jauna zure esku indartsuagaz orma sendo bat ipini egizu sarreran, gaizkille orreik sartu ezin daitezzen ni erailtzera.*

Begiak zabaldu zituan kobaren agoa ormaz estalita egongo zalakoan eta ikusi eban amarauntxuak sarea eiotzeari ekiten eutsola.

Onezkero gaizkilleak gizasemea egoan ondoko koban sartuta egozan, eta gizasemea eriotzaren zai gelditu zan.

Gaizkilleak gizasemea ostondurik egoan kobaren aurrera eldu orduko, amarauntxuak erabat estali eban kobaren agoa.

Gizasemeak gaizkillen alkarrekiko berbetea entzun eban: *Tira! Sartu gagizak koba onetako barrura.*

- Etxon! Ez al dok ikusten armiarma sarea?. Inõr eztok sartu koba onetara. Goiazak billatzera urrun-go kobetan!

Fedea ikusten eztana ba daukazula, sinistea da.

Esaldi eder bat da auxe: *Jainkoari zuaitz bat eskatzen ba deutzazu, azi baten gisan emongo deutzazu.*

Sarri askotan eskatuten doguz gure aldetik bearrerotzat onartzen doguzanak.

Jaungoikoak emoten dauskuzanak xumeak izanaz, erakusten deusku andiangoak egin eikezala.

Ignacio Landa
(Klaudio Barroetak euskeratua)



Zu barik. (Amaren oroiz)

Eguzkia gainberan
doan araberan,
lurra gelditzen jaku
ikus eziñean.

Pena sentitzen dogu
biotz barrenean,
itsu baten antzera
egon bearrean.

Zu barik, ama ona,
gagoz gau baltzean.

Euriak bustitzen dau,
ur gozoaz lurra,
ta gogor dagoena
egiten samurra.

Urek deusku biguntzen
jateko koskorra,
eta edanda leundu
estarra legorra.

Zu barik, gure ama,
dana da agorra.

Udan agertzen jaku
lurra dotorea,
zuri-gorritzko lore
ederrez betea.

Laster, bañan, jatorku
udazken aldea,
aize ta eurik emonaz
itxura tristea,

Zu barik, ama, dogu
ilun gure etxea.

I xilik dator otza
neguen itxuraz,
menderatzen gaitula
lurra izoztuaz.

Agur, diño e lorak,
agur, karraxiaz,
berotu gure ta
berotu eziñaz,

Zu barik, ama, gagoz
biotz otzikaraz.


Fedea dogu eguzki,
Fedea, gure argi,
Fedea ur gozoa,
ta aize berogarri.

Fedeak sortzen dausku
mundu-eder barri,
Fedeak zuzena dan
bidea erakutsi,

Zu barik, ama, ezin
Fedeari eutsi.

Munetxe - (Klaudio Barroeta)

olerkia



Sokrates

A spaldiko Grezian (469-399) Sokrates maixu andi lez onartuta egoan jakituriz ornitua zalako.

Bein batez ezagun bategaz topo egin eban. Onek, urduritsu, esan eutson:

- Sokrates! ¿Ba al dakizu zer esan deustien zure ikasle bateri buruz?.

-Ixo! erantzun eutson Sokratesek. Ezer baño lenago azaldu eidazu, mesedez, urrengo argibidea. Argibide orren izena “irazki irukoitza da”.

-¿Irazki irukoitza?

-Bai, alantxe da. Nire ikasleari buruz ezer esan aurretik, ondo liteke apur baten ausnartu ta irazkitu esango dozuna. Lenengo irazkia Egiarena da. Ziur al zagoz egia dala esango dozuna?

-Ez ba! Jakin barri naz-ta...

-Ondo da! Beraz, ez ei dakizu Egia danik kontatu nai daustazuna.

Ikusi daigun orain, bigarren argibidea: Ontasuna. Kontatu egidazu nire Ikasleak daukan ontasunen bat.

-Bai zera! Ostera guztiz!

-Beraz, ziur egon barik jakinerazi nai daustazu nire ikaslearen akatsen bat?


Ia osatzen dogun irugarren argibidea: Laguntasunarena ¿Lagunduko al deust ezer nire ikasleari buruz kontatuko deustazunak?

-Ezer gitxi, nik uste.

-Ba orduan, diñotso Sokratesek, “esan gure deustazuna egia ez bada, ez eta gauza ona edo ta laguntasun gitxikoa,

¿ zertarako kontatu?”.

(Klaudiok Barroetak euskeratua)





Ibilgailurako erregaia aurreztuteko aolkuak

Krisladia dala-eta, eta osterantzean be, gastuak non eta zelan txikituko ibiltzen gara guretariko asko, zenbaki gorrietan sartu barik. Gastuetariko bat, eta ez lebarik txikerrenekoa, autoak eta beronen ingurukoak eragiten deuskue, autoa daukogunoi, jakina. Alan bada, an-or-emen entzuten edo irakurten diran erregaia aurreztuteko aolku jakingarri besteko lagungarri batzuk dakartsueguz lerrootara. Euki eizuez gogoan!

- Euki ibilgailua matxurak barik, kontsumoa eta kutsadurea ez andituteko.
- Euki iragazkinak garbi eta eutsi orio maileari, motorea eraz egon daiten.
- Euki burpilak ondo puztuta, jagoken presionan, kontsumoa eta kutsadurea ez andituteko.
- Ibilgailuaren pisuak eta barruko zameak eragin egiten dabe. Ez eroan bearrezko ez danik.
- Ganerako zamea auto barruan bardintsu imini bear da, airearenganako erresistentzia txikituteko.
- Autoan sartu, gasolinaduna bada, motorea biztu eta berealan abiatu bear da. Gasoilduna bada, motorea biztu, 5 segundu itxaron eta, gero, abiatu egin bear da.
- Bein autoa ibilbidean, ibilgailuaren inertziari onurea atara bear jako, baita martxa luzea aalik eta sarrien erabili.
- Ez zapaldu azeleragailuari, euki sartuta martxea eta 20 km/h baino andiagoko abiadan joan ezkerroan, erregairik bape ez da erreten. Alan bada, ibilgailuaren inertziari aalik eta onurarik andiena atara bear jako.
- Onena, aalik eta martxarik luzeenetan ibiltea da. Leenengoa indartsuena da, baina geien erreten dauana be. Alan, leenengoan bearrezkoa danean baino ez ibili eta sartu bigarrena aalik arinen (segundu bira, edo). Aal bada, martxarik luzeenak aalik arinen sartu bear dira. Gura bada, bigarretetik laugarrenera edo irugarretetik bosgarrena jauzi egin leiteke. Gomendagarria da azken au.

- Gasoila erabilten daberen ibilgailuetan, martxak 1.500 eta 2.000 arteko bm-etan aldatu bear dira. Gasolina erabilten daberenetan, barriz, 2.000 eta 2.500 arteko bm-etan. (bm= biraketak minutuko)
- Zenbat eta abiadura txikerragoa izan, gero eta gasolina gitxiago erreten da. Ibilkeran abiadura bardintsuari eustea onurakorra izaten da, ez ibili azeleragailuari eta galgeari bear ez danetan zapalduten.
- Autoaren abiadura txikituteko, erabili motorea, eta ez zapaldu galgeari zuzenketa txikiak egiteko baino ez bada. Bidean gelditu bearko dozuna argi ikusten badozu, gomendagarria izaten da azeleragailutik oina kendutea, autoak abiadura txikituko dau berez. Ez da azken unean galgetan ibili bear.
- Martxak laburragoak aalik eta beluen sartuko dira, eta aal bada, txikerrenetara jo artezean erdikoak sartu barik. Banan-banan martxak beerantza aldatu ezkeron, abiada bako puntutik igaro bear izaten da, eta bertan gasolina erreten da. Abiada bako puntutik igaroten dan baktxean gasolina injektau egiten da— eta.
- Aize egokituak kontsumoa igoten dau sano. Auto barruko ozberoak 23-24 gradukoa bearko leuke izan.
- Ibilkeran ibilgailuaren leioak zabalik eukiteak be kontsumoa igongo dau.
- Autoa minutu bi baino luzaragoan geldirik egongo dalakoan bazagoz, amatau motorea.

Kontuz darabilzun abiaduregaz eta ondo bidegin!

Iniaki Martiartu Bakio



Sendagaiak

Ona emen aspaldiko sendagai batzuen izenak. Geienak desagertu dira. Alan da be,arritzekoa izan arren,batzuk ikusi leikez oindiño.



- 1- "PILDORAS - DE VIDA-DR. ROSS". Ross Jaunaren pilula bizkorragariak.
 - 2- "EMULSION DE SCOTT". Sorbaldan makallao deroan gizasemea....Umetan aitu ezinekoa. ¡Sekulan gustatu leiken saporerik garratzena!
 - 3- "ALKA-SELTZER". ¿Ba dago iñor ta iñoz, biotz errea baretzeko Alkazar-Seltzer artu bakorik?
 - 4- "NUMOTOZINE". ¿ Ba al dago iñor Numotozine kiratsua gogoratuten eztabenik?
 - 5- "IODEX"- Au be urrinetik susmatu leikean usain berezidun orreitikoa zan.
 - 6- "OPTALIDON"- Aukerakoa, burukomiña kentzeko. Alan da be debekatu zan minbizi arrizkuagaitik.
 - 7- "PHILLIPS".- Esne magnesiduna, libragarri bikaña.
 - 8- "CITRATO DE MAGNESIA". Magnesi-Citratoa ta iko-gatza, garbigarri oldarkorrenak.
 - 9- "CIGARRILLOS BALSÁMICOS". Arnasestua konpontzeko usai gozozko zigarretak. ¡Sinestu eziña!
- ¡Ondo irakurri,gero!
- 10- "CIGARRILLOS ESCO ANTIASMÁTICOS". Marka ez bardiñetakoak...Sinisgaitza? Ala, ez?
 - 11- "CIROSODINE"- Tripako miñak kentzekorik indartsuena. Bi edo iru aletxuakaz, erabat zuzenduta.
 - 12- "ENTERO-VIOFORMO". Berantzakoa kentzeko. Minbizirako arriskutsua izategaitik debekatuta.
 - 13- "LOS EMPLASTOS POROSOS". Ule guztiak kentzeko egokienak... ¡Partxe Porotsuak!
 - 14- CATAPLASMA HARTMANN. Partxeakaz zeozer lortzen ba zan... onetiko kataplastamakaz ez gitxiago....
 - 15- SOLUCIÓN INYECTABLE. Ikusi egizuz ,zelangoak ziran sabel-miñak kentzeko anpu-lak,ebagiteko serrotetxuagaz batera.
 - 16- BERI BERINA. Egundo be ez eustien ziztatu. Baña artu ezean "BERI BERI" gaitz bildurgarriegaz kutsatu leikean. Arrozagaz bakarrik bizi ziran txinatarren artekoa ei zan.

17- **CORAMINA**. Biotzekoa, arritmia ta tensioa zuzentzeko erabiltzen zan.

18- Sendagaiak ziztatzeko garaian bideriozko ziztagalluak erabiltzen ziran ta ur irikiñean garbitzen ziran orratz bir-erabilgarriakaz. Orratz mintza moztu ezker, gezi bategaz lez zulatu bear izaten zan eperdi ganeko azala. Ikara dakar gogoratuteak. Txiselari egonarren ,ezin egin tantakadatxu bat be.

¡ Ez egoan Sidarako bildurrik!

19- **PASTA GRANUGENA**. Zoritxarrez desagerturik. Aragi egiteko agertu izan dan onenatarikoa...

20- **MENTHOLATUM**. Bitxirik gorengoena. Mentholatum kutxatillatxua, erabateko sendagaia zan! Gogoan daukat nire amak zelan berotuten eban Mentholatuma kutxaratxuan poxporoagaz. Gero, estula biguntzeko, igurtziten eustan bularra, periodiku edo estraza-papela, franela lodi bategaz loturik, bularra bero berotan ipinteko.

¡Ta bizi naz!

21- **VICK VAPORUB**. Mentholatumaren antzekoa.

22- **ANTHIPHLOGISTINE**. Sarriten erabilten zan kataplasma.

23- **VEGANIN**. Edota Veganine izenagaz ezagutua. Minek baretuteko aukerakoa, "aspirina" ta codeinagaz batera.

4- **BELLER GAL**. Kirio arloko arazoak konpontzeko. Gaurko egunean "stress" deritzona.


Ba zan beste bat Bellergal -retard izenekoa.

25- **CAFIASPIRINA**. Kutxatxuak dionez: miñak kendu ta bizkortzeko. Au da: miña kendu ta sekulako korrikalari biurtzeko aiña. Cafeina ta aspirinaz batera,aldaketa sortu bearko!

26- **PASTILLAS VALDA**. "Valda" pastillak samako miña kentzeko. Erotzeko añakoak: gomazko bolatxu oneik,oso gozoak dastatzen asikeran,baña,geroxeago mentola geituta, sutan ipinten euztuen gorputz guztia.

Eskerrak jaungoikoari, gaztaroan (aspalditxuan bear bada) gure eskuetan egozan sendagai miraritsuak erabilli arren, ondiño be, bizirik gagozelako.

Amen.



Rodrigo Jimenez De Rada Gongotzaia

Toledoko Gongotzaia izan zan.

1170. urtean Nafarroako Puente la Reinan jaio zan, eta 1247/01/10 Lyon, Frantzian il zan.

Ospetsua egin zan Las Navasko gudaketan.

Letrango Kontzilioan parte artu eban, eta euskerazko itzaldia egin eban.

Kontzilio au 1.215 n. urtean batzartu zan 1.200 dik gorakako batzarkideakin.

INOZENZIO III buru izan zan eta lurrekiko naiz animekiko Aita Santuaren eskubidearen aldeko gaia erabilli zan.

RADA gongotzai onek latinez idatzitakoak doguz Breviarium Ecclesiae Catholicae, Eskorialeko Idaztitegian dagona, Historia Gotica, ta Ostrogodo, Huno, Bandalo ta Suevoena be bai...



Agustin Arrien
(Klaudiok Barroetak euskeratua)



ALBUM LEIAKETA

PERU ABARKA .COM

Leiaketa

Peru Abarka leiaketaren elburua euskal literatur produkzioan formatu berritzaileak sustatzea da, album formatua ain zuzen ere. Album formatua aur literaturan nagusiki erabiltzen bada ere, Europako literatur joera berriek erakusten dute gero eta zabalagoa dela elduen literaturan ere.

Album formatuan testua ez ezik, ilustrazioak ere argitalpenaren gun e biurtzen dira, letrak eta artea uztartuz.

orrela, Peru Abarka leiaketaren bidez euskal idazle asi berriak topatu nai ditugu, formatu berri onetan argitaratzeko gogoia dutenak. Baina ez ori bakarrik, ilustraziogintzan aritu nai dutenak ere literaturaren mundura erakarri nai ditugu. orrela, bi leiaketa ditugu batean: narraziorik onena aukeratzeko leiaketa, eta, aukeratutako narrazio ori ilustratuko duen ilustraziorik onena aukeratzekoa.



Epea 2010eko urtarrilaren 29an amaitzen da.

Herri Biblioteka
Abesua 12
48270. Markina-Xemein. Bizkaia

Sabino Arana Lekeition



Orduñan, Jesuiten Antuguako Andra Mari ikastetxean ikasketak egiten egoan Sabino Arana.

Alako egun baten ,1.881-VI-16 an, presaka eroan bear izan eben gaxo-gelara “Tisis galopante” gaitzak jota egoalako.

Iltzear egon zanez,eleizako Azken igurtzia artu eban.

Baña 21-22 ko gaubean, era miraritsuan menderatu eban gaitza.

Illaren amaieran, oian bertan, Batxillergo azterketak egin eta Batxillergo Titulua lortu eban.

Gutziz sendatzeko asmotan, ama ta anai Luis la-gun artuta, Lekeitiora abiatu zan.

Emen bere arreba Franziskaren etxean bizitzen asi zan. Franziska, erriko sendagille titular Pedro Larreagaz eskonduta egoan.⁽¹⁾

Senar-emazte oneik Campillos-alta kaleko 4go zenbakian bizi ziran.⁽²⁾

Atsedenaldea, joan etorri erosoak,aide garbi ta elikagai egokiak artzea, izan jakozan bizkortzeko biderik onenak.

Jose Iñaki de Madariaga.

Lekeitio 2009-VI-24.

(Klaudio Barroetak euskeratua)

1)- Pedro ta Franzizka senar emaztek izan ebezan seme alabak, onexek izan ziran : Anunciación, Luzia, María Concepción ta Jose M^a. Au dala ta Sabino iru lekeitiarren osaba dogu.

2)- “Casa Salinas” deritxon, XVIII mendeko eraikin bat edo da, lenago “Campillo” izenez ezagutua. 1876 an andia-gotu zan Bikario etxeagaz bat egin da geratuz.



Euskerea dala-ta

Egun orretan Barroeta eta Amorrortu´tar Klaudio, Euskerazalea ta Euskerazaintza taldearen zuzendari danak, deitu eustan etxera esanaz: Paul! irakurri dozu Deia´k “Tribuna Irekia”n Urrutia´tar Koldo´k idazten dauana?. Irakurten ba dozu, jakin gure nuke zer deritzazun, eta obe, irakurri ori buruz zeozer idatziko ba zendu.

Sarrera.

Jaungoikua´k, arimadun bizitzara bialdu ginduzan. Eta arrazoidunak izanez, laster konturatu giñan, Jaungoikoak bera´k ipinitako gai-lege artean egokiturik gengozala. Bai eta neurria bear gendula eginkizun guztietan.

Baten batek esan lei, idazlan oni buruz eritzia emoteko, ez dala asi bearrak asierako zentzunetik.

Uste dot baiña, badaukala zentzuna, gai-gizatasunezko bizitz onetan gure arima arrazoiduna baitu⁽¹⁾ zalako. Eta ortik aurrera eginbear doguzan ekintzak, egiz ala guzurrez egiten doguzan jakiteko, arima berak emoten dauskula nekearen edo poza-ren neurria.

Gaurko norkeriak daukan indarrezko eragin bidez, gure baita guztiz naztu ta lokaztuta daukagu, eta gure izatasunezko ekintza-bidean gaiztotu⁽²⁾ gintekez Urrutia´tar Koldo´ren gezurbidezko idazlan olangoak egingo ez ba geunkez..

Iñork iraindu barik, Urrutia´k egiten dauan antzera.

Euskaldunak emon bear doguz oinkada ederrenak, euskerea Mundua´ren aurrean argi ta garbi agertu dadin. Azter-lan on baten bidez dauka-

1).- Baitu = concienciar. / 2).- Gaiztotu = hacerse malvado.

zan arazoak bakanduta, atzerritarrak bideratu daiezan.

Eta Mundu´ko jakintsuak ardura aundiko laguntza emongo dauskue, ikusten ba dabe zentzunezko alegiñak egiten doguzala, gure Euskerazko-Nortasuna larrialdetik atarateko.

Mundu onen asieratik, giza-semearen leiñu-ondore eta belaunik-belaun denbora guztiak bardiñak dira, gure ekintza eragille-lez, ekandu-aren zuzentasunezko zentzua lortzea dalako, “Jainkoa bera´k, legez bereztu eban gai-au buruz”.

Mundu onetan, gizaren ondorengo bizitza, ez da orain 2.000 urtetik ona erabili doguna bakarrik, milla urte askotako bizitza daukalako, eta beti, Jainkoa´ren legea´ri begira, egiten dogun “zergaitik” itaunari, zentzunezko adierazpen on-bat emoteko.

(Eta gaur naaskerian sartuta, argi-bidearen billa egarriz, Paleolitiko-Neolitiko´aren aldian, izkuntz ta demokrazizko zentzuan lortu ziran zentzunezko jakintzak bir-eskuratu edo argitu naian gabiltz, eta jakitun ikertzaille artean, Wennemann´tar Theo, germaniar ele-jakintza- ren maixua da bat.

Munduan gaur azterkuntza´ren zail-tasuna.

Gaur daukagun jakituriagaz, azterkuntzazko lanak, ez leukiez ain zaillak izan bear.

Euskal-giza, azturazko jakintza-bidetik oituratu dabezan ezauntzak, andiak eta ondo landuak izanda, sorburuzko aztarnaren billa jakintza aundia daukagulako alderantziz aztertze.

Jaungoikoa´k bizitz au zergaitik dan, ostondu edo mugatu egiten dausku, gaia **beré´n legea´kaz** sustraituta, eta gu azter-bidez, gaiak bere almenean daukazan izakizun edo ditkeenak lortzeko egiten doguzan erdizko zatiketak, amaitubakoak biurtzen jakuzalako.

Ori baiña, **Jainkoa´ren** gogamena jakin gure naian ibiltan garanean sortzen jaku, **bere** borondatearen izkutuko erabagiak diralako gurentzat.

Baiña gure arteko ekintzan gaur dakigunagaz, gai-Mundu onetan ez dago ezer izkutatzeko leku edo erarik, izten doguzan aztar-bidez danak jakin leikezelako.

Orduan, azter-lanaren zail-tasunak, nondik agertzen dira ?.

Gaur argi ikusten dogu, sasi-jainkotasunean bizi gura daben bidetik agertzen jakuzala.

Sasi-jauntxo oneik, euren gogo-asmoak lortzeko, menperatzailletasunezko indarra erabili bear dabe, Mundu´ko janari-gela onek daukan mozkin guztia euren kontrolpean eukitea gura ba-dabe.

Eta gaurko Mundu onetan, darabilguzan jaurkintzazko arauak aldatu ezik, mendeko ekintza ortatik ez da iñork ta ezer iges egin leikenik, eta edesti guztiko buru-zalekerian or dabiz: "Izkuntzaren Nortasunezko-leiñu, auzo edo ta erri Norkeriaren zerbisura aldatu naian".

Ez da lelokeri bat esan dotena, argi ikusten dalako **Jainkoa´ren nortasunezko borondatea, giza´ren norkerizko borondatera aldatu gure dabelako.**

Edesti guztian, guda-bidez egiten ziran, eta gaurbe alan egiten dira mende oneik, garaipenduta

agertzen diran sasi-jainko ezberdiñakin, gaur daukaguzan mendeko-laterri auen antzera, morroitasunean egokitu gaitezcan.

Norkeriaren garaipeneko ekintza orreik, ainbeste bider aldatu ziran, orduan lortu zan jendekuntza⁽³⁾ be alderrai⁽⁴⁾ biurtutea: Sumer, Ejipto, Kreta, India, Grezia, Erroma edo ta Mauritar jantzita ibili zala.

Eta zenbateraiño ez zan izango an ibili eben naaskutza, erdi-alderrai eta erri lez bizi ziran indoeuropeoak esaten jakienai, Europa, Arabia, Afrika ta Asia guztitik zabaldu zitezen.

Baiña, zein da gaur azterkuntza oztopatu egiten dauana?.

Nizea´n, Mundu´ko gizarte guztia Kaizar eta Aita-Santubaten mendean egon zedilla asmatu zana, erregetzaren jaurpidetik lortu ezinda, XVIIIñ. Gizaldian Frantzia´ko iraultzaren bidetik, Europa ta Munduan dagozan berezko-erriak kontuan artu gabe, eta erregeak itzarmen bidetik antolatzeke euki ebazan erri ta lurraldeak, indarrez laterritu ebazala Nizea´ko asmo bardiñagaz.

Orregaitik, gaur arteko billaketaren azterkuntzan ibili diranak, nai-ta

menperatzaillearen ezezko zigorra euki arren, ikaragarritzko lanak egin eta gero, merezimendu aundiena daukie, menperatzaille bakotzak euren eskuetan sasi-ekanduzko ixipu andia artuta eta ainbeste margo-esku emon ondoren, al izan diralako, margoaren esku-aldi bakotza kontu aundiagaz zati txikerretan erauzita⁽⁵⁾ azpikoa ez dadin ondatu, urte askoren ondorioz, egia, arlo andienean argitzeko.

Gaur, mendeko bizitz bardiñean gagoz, baiña egia dana ezin dabelako eragotzi⁽⁶⁾, jaurkintz eta jakiturizko agintzan daukien eragipenagaz balioten dira, Lakarra´ren antzera, utsegiteke bidetik joan gaitezcan.

Ez ote gara izango, daukaguzan jakiturizko zeaztasunekin, emon bear diran zentzuzko oinkadak emoteko?.

Ipini daiguzan adibide batzuk.

3).- Jendekuntza = civilizaciòn. / 4).- Alderrai = nòmada. / 5.-) Erauzi = hacer saltar. / 6).- Eragotzi = derribar, demoler.





Euskerea.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Omo-Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik euki eben izkuntza “**len-ereduko euskerea**” zala, Atlant-Itsasotik **India´raiño**.

Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omo-Sapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba ?.

Euskerazko toki-izenak eta oiñarrizko itzak Mundu-zabalean, zeozer esaten dauskuna da, kontuan eukiten ba-dogu, asieratik gaur arte izen-geografiko batek iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan ainbeste milla urte irauteko, eta ori ez da lortzen, toki orreitan, izen orreik milla urte askotako jabetasuna ez bada-be eukiten.

Krutwig´ek, beste gauza askoren artean, alkar-ganatu egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertuko ziran Troya (euren ariñagoko izena Ilión izan zan, eta Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau), Sumeria edo Babilonia´k euki ebanagaz.

Zubiaga eta Legarreta´tar Felix´ek bere liburuetan esaten dau: “Izkin-bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala”.

“Izkin bateraiño eltzea, eredu-nagusiren ozenezko iturria argitzea dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta Euskerea, gai dalako izkin-bakarreraiño eldu, orain ezin dala esan alderatzailleak esaten daben antzera: “Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.

Mintzoeraren oguzpeneko jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren **jaiokera argitzen dauan “izkuntz-bakarra”**.

Euskerea, Euskalerria´ren ekanduzko eraikintza da, bere azalpenean erriaren siñismena erakusten daualako.

Orregaitik, Euskal **itza, arima´ren** otsa biurtzen danean, **Jainkoa´ren** Euskal seme-alabak ekandu-sakonean berba egiten dabe, Sabino´k esaten eban-lez, bere mamian oiturazko ikas-bide edereña daukalako **Jainkoa´ri** begira.

Gure **Euskalerria´ren** baita, egi zale izateak ez dauka mirari´rik, ainbesteko milla urte azturako bidean, **euskerea´k** berak bere-barnean dakarrelako **egia´ren** zentzunezko mezua.

Euskaldunak, edo ta Euskerea, sekula iñoren aurrean makurtu ez dan “**berezko-nortasuna da**”.

Ez dogu alegin geitsuagorekin atarako, latiñ eta latin-kume menpera- tzaillearen eragipenetik ?.

Euskaltzaindiak, alango gizon-emakumeak bear leukez **euskerea** dagoan larri-aldetik atarateko.



Latiña.

Etruskoak bideratuta, Errromatar asmakuntzaren sorraldia, K.a. 753'ko urtean egin eben, Sabino ta Iszeres'akaz alkartuta.

Etrusko'en jakintza aundian, leen asmakizuna latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan zedin egin ebela. Griego'aren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti-arauzko izkuntz-aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte.

Baiña menperatzaille sortu eben egindako latiñ ori, eta atzera begitu egiten ba-dogu, ez du ikusiko besterik: Nastetasun bidez latin-kume asko sortu ebela, berezko erriak lau-bost zatitan banatu ebazala, eta amaitu ezinezko odol-ziatutako⁷⁾ bide zabalak alde guztietatik.

Etrusko oiek, zelako izkuntza artu eben Griego'en iztegia'gaz erintzeko, Sabino'rena, Iszeres'ena, eurena?

Dana dala, baleike euskeraren eragipenetik sorturikoa zala, Italia'ko lurraldearen toki-izenak alan esaten dauskuelako, eta Etruskoa'ren lurraldea Euskerazko izena daukien Arno ta Tiber ibai biekin mugatuta egonda, argi geiago emoten deuzkuelako.

Latiña, gizartearen elburu izateko, mendetasunezko bizitza erintzeko bakarrik balio izan dau, gaur Ekanduzko-arloan ikusten dogun lez, bere eragipenetik egin dan guztia, utsituta itzi dabeleko.

7).- Odo -ziatu = cuajarse, coagularse la sangre.



Ondorioa:

Jainkoa’ren mendean gagozelako, guk egineko lege ta izkuntzak, Bereztasunaren **nortasunezko-lege**’tik atara ezker, norkerizkoak biurtzen dira, ez daukielako zer ikusirik, **Jainkoa**’k gure arimako baitan dingilizka ipini euskun “**zergai**-tik” itaunagaz, bizitz onetan aurrera bakez egitea gura ba-dogu.

Bere Bereztasunezko **legea**’ri emon bear dautsa-gulako adieraz- pen guztia.

Eta gaur badakigu zer gertatzen jakun **bere** lege’en arduratik kanpo gabiltzanezkero giza-esku-bideetan eta Ekanduzko arlo guztietan.

Euskerea, nortasunezko izkuntza da, eta bereztasunez- ko lege’an egin dan izkuntz-bakarrene-tariko bat.

Gure “lege-zarra”k, Paleolitiko-Neolitiko bitar-tean lortu ziran **demokraziaren ekanduzko** ekin-tza bidetik, bereztasunezko egia zainduta sekula

ez garalako inor menperatzera joan eta gitxiago gure lurak eta etxeko atea inori mugatu edo ta iztera joan.

Euskerea da, gai-mundu oneri lotsa aundiko ekin-tzan adierazpen ederrena emon dauana. eta gure Euskal gizartean, argi nabaritzen dan gauza da.

Gure Euskal-arteko jakintsuen esanetan eta euren idaz-lan bidetik, sarritan entzun ta irakurri dot esan au: “**egiak** askatuko zaitue”.

Nundik, artu bear doguz irakaspenaren argiak, “**bereztasunezko lege-bidetik** izan ezik?”.



Egin daiguzan gauzak, gure nortasunaren-baitak egarriz eskatzen dauan bidetik, gure euskerea Mundu’ko Jakintsuentzat **larrialdi-gorrian** da-goelako.

Atutxa’tarPaul.
2.009’an Uztailla’ren 25’ean

#Euskaldun barrientzat

Zazpi erruak

IIkasten



Ipuin sariketako
irabazleen izenak

1. Asier Legarreta
2. Jose M^a Murua
3. Palmi Merino
4. Aurora Lopez
5. Patxi Hierro

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
..... kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Begoñako Andramari
Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak
zugana kantari

Itxas gizon siñesdunak
zugan dabe kabi
artzain gaixo menditarrak
zugan euren begi
Lugin eta langileak
zuri otoilari
aberatsak ta txiroak
zaituela argi

Ama maite bihotzeko
bigun eta garbi
Bizkaiko seme-alabak
hartu ta zain beti

